

Moodle eskuliburua

Puente de Deusto 7, 2º, Dpto. 4 | 48014 Bilbao

Tlf: +34 944 484 195 | **fax:** +34 944 484 195 | **Web:** www.gizer.net | **Mail:** info@gizer.net

1 - Aurkibidea

| | |
|---|----|
| 1 - Aurkibidea | 1 |
| 2 - Sarrera | 2 |
| 2.1 - Zer da Moodle? | 2 |
| 2.2 - Software librea | 2 |
| 3 - Rolak..... | 2 |
| 4 - Sistema abiarazi | 3 |
| 4.1 - Sistemara sarbidea | 3 |
| 4.2 - Erabiltzaile baten erregistroa..... | 4 |
| 5 - Ikastaro baten interfazea | 5 |
| 5.1 - Goiburua..... | 5 |
| 5.2 - Erdiko zutabea | 6 |
| 5.3 - Ezkerreko/eskuineko zutabea | 6 |
| 6 - Edizio-modua..... | 7 |
| 6.1 - Blokeak aldatu..... | 7 |
| 6.2 - Baliabidea edo jarduera aldatu..... | 7 |
| 6.3 - Atalak aldatu | 8 |
| 7 - Blokeak..... | 9 |
| 7.1 - Pertsonak..... | 9 |
| 7.2 - Online erabiltzaileak | 10 |
| 7.3 - Jarduerak | 10 |
| 7.4 - Foroetan bilatu..... | 10 |
| 7.5 - Ikastaroak | 11 |
| 7.6 - Berritasunak | 11 |
| 7.7 - Egutegia | 11 |
| 7.8 - Datozen ekitaldiak | 12 |
| 7.9 - Duela gutxiko aktibitatea..... | 12 |
| 7.10 - Ikastaroaren deskripzioa..... | 13 |
| 7.11 - Ataletara joateko estekak..... | 13 |
| 7.12 - HTML | 13 |
| 7.13 - Mezuak..... | 13 |
| 7.14 - Galdetegiaren emaitzak | 14 |
| 7.15 - Glosategiko ausazko sarrera | 14 |
| 7.16 - Urrutiko RSS kanalak | 14 |
| 7.17 - Administrazioa..... | 14 |
| 8 - Baliabideak | 16 |
| 8.1 - HTML editorea | 16 |
| 8.2 - Etiketak..... | 16 |
| 8.3 - Testu-orriak..... | 16 |
| 8.4 - Web orria..... | 17 |
| 8.5 - Fitxategi edo webgune batera lotu | 18 |
| 8.6 - Direktorioa erakutsi | 19 |
| 8.7 - IMS eduki-paketeak | 19 |
| 9 - Jarduerak | 20 |
| 9.1 - Galdetegiak | 20 |
| 9.2 - Ikasgaia | 26 |
| 9.3 - Glosategia | 26 |
| 9.4 - Zereginak..... | 27 |
| 9.5 - SCORM | 28 |
| 9.6 - Hot Potatoes Quiz..... | 28 |
| 9.7 - Foroak | 28 |
| 9.8 - Wiki | 29 |
| 9.9 - ACCEdu ariketak | 29 |

2 - Sarrera

2.1 - Zer da Moodle?

Moodle eLearning plataforma oso bat da, edukiak, jarduerak eta erabiltzaileak kudeatzeko funtzionaltasuna duena.

Moodle hitza Objektuetara Bideratutako Ikaskuntza Ingurune Dinamiko Modularra esaldiaren ingelesezko akronimoa da (*Modular Object-Oriented Dynamic Learning Environment*).

Moodle sistemaren lehendabiziko bertsioa 2002ko abuztuaren 20an agertu zen, eta hortik aurrera aldiro-aldiro baliabide berriak, jarduerak eta Moodle-ren erabiltzaileek eskatutako hobekuntzak gaineratzen joan diren bertsio berriak azaldu dira. Azken estatistiken arabera, erregistratutako 38.627 leku, 2.620.795 ikastaro eta 26.377.287 erabiltzaile daude.

Ezagutza ikaslearen adimenean eraikitzen dela defendatzen duten printzipio konstruktibistetan oinarrituta dago Moodle, liburuetatik edota irakaspenetik bere horretan helarazi beharrean, baita elkarlaneko ikaskuntzan ere.

2.2 - Software librea

Moodle Software Libre (Open Source) gisa banatzen da GNU lizentzia publikoan. Horrek esan nahi du Moodle sistemak egile-eskubideak (copyright) dituela. Dena den, Moodle kopiatu, erabili eta alda dezakegu. betiere honako hiru baldintzak betetzen baditugu: iturburu-kodea beste batzuei ematea, jatorrizko lizentzia eta egile-eskubideak ez aldatzea eta bertatik eratorritako edozein lantzi lizentzia hori bera aplikatzea.


3 - Rolak

Rolak Moodleren funtzionamendua ulertzeko oinarritzko kontzeptuk dira, hasieratik bertatik argi geratu behar direnak.

Rol bat erabiltzaile mota jakin bati dagokion pribilegio multzoa da.

Honako hauek dira garrantzitsuenak:

- **Administratzailea.** Baimen osoak plataforma guztian.
- **Irakaslea.** Irakasten duen ikasgaiko erabiltzaileak, edukiak eta kalifikazioak kudeatzeko baimena dauka.
- **Ikaslea.** Ikastaro askeetara edota matrikulatuta dagoenetara sar daiteke horien ikasketak egiteko.
- **Gonbidatua.** Ikastaro askeak ikus ditzake, baina ezin ditu aldatu.




4 - Sistema abiarazi

4.1 - Sistemara sarbidea

Moodle web aplikazio bat da, eta edozein web nabigatzaile erabilita sar zaitezke bertara. Horretarako, baina, gure Moodle instalazioa zein URL helbidetan dagoen jakin behar dugu.

Behin Moodle nabigatzailean kargatuta, sistemara sartu behar dugu, eta, horretarako, ezinbestekoa da bertan [erregistratuta](#) egotea. Erabiltzaile-kontuaren datuak *Sartu* izeneko eremuan sar daitezke, edota *Sartu* loturaren gainean klikatu ondoren zabalzen den pantailan.



Sistemak gure datuak gogorarazteko aukera eskaintzen digu, ahaztuta izanez gero. Horrez gain, bertan dagoen ikastaroren batek gonbidatu gisa sartzeko aukera ematen badu, horixe da sarbidea.

Behin barruan, eskuragarri dauden ikastaroak azaltzen dira pantaila nagusian.



Ikastaroen aldamenean **aurpegitxo (1)** baten ikonoa agertzen denean, horrek adierazi nahi du ikastaro horietara gonbidatu gisa sar daitekeela, hau da, ez dela beharrezkoa sisteman erregistratuta egotea; alabaina, ikastaro horiekin egin daitekeen gauza bakarra horiek bistaratzea izango da, ezingo dira editatu edota landu.

Aurpegitxoaren ikonoa agertzen ez bada, matrikula egin beharko dugu. Horretarako, nahikoa da ikastaroaren gainean klikatzea. Gerta daiteke matrikulazio-pasahitz bat behar izatea. Horrela izanez gero, pasahitza sartu eta matrikula eginda egongo da.

Matrikulazio-pasahitza duten ikastaroek **giltza (2)** itxurako ikonoa edukiko dute.

Informazioa (3) adierazten duen ikonoak ikastaroaren laburpenari ematen dio paso, baldin badago.

4.2 - Erabiltzaile baten erregistroa

Erabiltzaile baten erregistroa hainbat modutara egin daiteke, baina erarik errazena eta automatikoen auto-erregistroa da.

Saioa hasteko leihoan jarraibideak topa ditzakegu, baita izen-emate formulariora joateko bidea ere.

Izena eman gabeko erabiltzaileak

Kaixo! Edozein ikastarotara sartzeko web-gune honetako erabiltzaile izan behar duzu eta horretarako kontu bat sortu behar duzu. Nola sortu kontu berria:

1. Sakatu lotura honetan **KONTU BERRIA** eta formularioa bete zure datuekin.
2. E-posta mezu bat bidaliko dugu berehala zure e-posta helbidera.
3. Mezua irakurri eta agertzen den loturan klik egin.
4. Zure kontua berretsi eta barruan izango zara.
5. Orduan, nahi duzun ikastaroa aukeratu.
6. "Partaide-giltza" bat eskatzen badizu, erabili matrikulatutakoan eman zizutena
7. Kontu berria sortutakoan, eta zenbait kasutan matrikula egindakoa, ikastarorako sarbidea izango duzu.
8. Hemendik aurrera zure erabiltzaile-izena eta pasahitza besterik ez dituzu sartu beharko hasiera orrian zeure ikastaroan parte hartzeko

[Kontu berri bat sortu](#)

5 - Ikastaro baten interfazea

Gure Moodle plataformaren pantaila ondo berezitzako hiru gunetan banatuta dago:

- 1- Goiburua
- 2- Ezkerreko/eskuineko zutabea
- 3- Erdiko zutabea

5.1 - Goiburua

Goiburuan zein leihoko beste gunetan bistaratuko diren elementuak aldatu egin daitezke Moodle plataformaren instalazio bakoitzaren arabera, baina, orokorrean, elementu komun batzuk agertu ohi dira, eta horiek azalduko ditugu.

Goiburuan honako elementu hauek aurki ditzakegu:

- **Identifikazioa.** Saioa hasi duen erabiltzailea nor den adierazten duen gunea. Erabiltzailearen profilaren datuak alda daitezke, baita zein ikastarotan matrikulatuta dagoen ikusi ere.
- **Irten.** Saioa amaitzeko esteka.
- **Nabigazio-barra edo ogi-mamia.** Apur bat beherago nabigazio-barra dago. Barra horrek testu itxurako estekak ditu, ikastaroko hainbat lekutara sarbidea ematen dutenak. Egia esan, une horretantxe azaltzen den leihora iristeko leihoen hierarkian barrena jarraitutako bidea erakusten du. Ezkerreko muturrean kokatutako testua gunearen izen laburra da, eta portadara bideratzen gaitu. Justu horren eskuinean dagoena, berriz, gauden ikastaroaren izen laburra da, eta haren orri nagusira garamatza.
- **Rol-aldaketa.** Ikastaro jakin baterako sortuta dauden rola erakusten dituen goitibeherako zerrenda. Aukera horrek, materiala sartu ahala, ikastaroa ikasle batek ikusiko duen bezala ikusteko balio dio irakasle bati, saioa itxi eta ikasle gisa sartu beharrik izan gabe.
- **Edizioa aktibatu.** Ikastaroaren edizioa aktibatzen duen botoia. Horren bidez ikastaroaren edukia alda daiteke.
- **Baliabideen edo jardueren zerrenda.** Baliabide edota jarduera batera sartzen garenean, bisita daitezkeen baliabide eta jarduera guztiak biltzen dituen goitibeherako zerrenda bat agertzen da

goiburuaren eskuinaldean. Zerrenda hori erabilia, posible da orri batetik beste batera joatea tarteko loturetatik igaro beharrik izan gabe.

5.2 - Erdiko zutabea

Ikastaroaren edukia bera erdiko zutabearen dago. Bertan agertuko dira ikasgaiak, baita ariketak, zereginak, foroak eta abarrak ere.

5.3 - Ezkerreko/eskuineko zutabea

Zutabe horietan daude ikastaroak modurik egokienean konfiguratzeko erabil ditzakegun blokeak. Blokeek ikastaroari buruzko informazio osagarria ematen dute, edota sarritan erabiltzen den informazio zehatzera sarbide azkarra izateko balio dute. Ikasgaiak modu independentean konfiguratu daitezkeenez, bistaratu diren blokeak erabiliko direnak izango dira bakarrik. Gainera, bloke horiek zutabe batean zein bestean koka daitezke, eta zutabe horietako bakoitzeko edozein lekutan.

6 - Edizio-modua

Ikastaro baten edukia sortzeko edo aldatzeko, egin behar dugun lehenbiziko gauza edizio-modua aktibatzea da. Urrats hori bi eratan egin daiteke:

- [Edizioa aktibatu](#) botoiaren gainean klikatuta.
- [Administrazioa](#) blokeko *Edizioa aktibatu* aukera hautatuta.

Edizio-modutik ateratzeko, aurrez erabilitako elementu berak erabiliko ditugu, baina kasu horretan *Edizioa desaktibatu* deituko dira.

Edizio-moduan sartzen bagara, ikastaroaren interfazea aldatu egingo da, eta elementu eta bloke bakoitzarekin erlazionatutako hainbat ikono azalduko dira. Ikono horiek egoki erabilita, alboetako panelen kokapena aldatu, ikastaroa osatzen duten eduki didaktikoak eta elementu indibidualak editatu eta erdiko zutabeko gaikako blokeak berrantolatu egin ditzakegu.

Ikono horien funtzionaltasuna bakoitzaren gainean klik eginda aktibatzen eta desaktibatzen da.

6.1 - Blokeak aldatu

Ikastaro bakoitzeko ezkerreko eta eskuineko zutabeetan dauden blokeak aldatu egin daitezke edizio-moduan. Horretarako, honako ikono hauek bistaritzen dira:



- **Aurpegitxo.** Erabiltzaile bati rol bat esleitzea ahalbidetzen du bloke horretarako espezifikoki.
- **Begia.** Blokea ikusgai dagoela adierazten du. Bere gainean sakatuz gero, ikasleak ezin izango du ikusi.
- **Gurutzea.** Blokea ezabatzen du.
- **Ezker-eskuin geziak.** Blokea zutabeen artean ezkerrera edota eskuinera mugitzea ahalbidetzen dute.
- **Gora eta behera geziak.** Blokea zutabe berean gora eta behera mugitzea ahalbidetzen dute.

6.2 - Baliabidea edo jarduera aldatu

Baliabideak edota jarduerak (erdiko zutabea) aldatzeko ikonoak honako hauek dira:

- **Gezi horizontalak.** Elementuari zutabearen barruan koska jartzea ahalbidetzen dute.
- **Gezi bertikalak.** Elementua gora eta behera mugitzea ahalbidetzen dute. Haien gainean sakatuz gero, helmuga posibleak adierazten dituzten lauki antzerakoak agertuko dira. Nahikoa izango da horietako batean sakatzea elementua lekuz alda dadin.
- **Arkatza.** Baliabidearen edota jardueraren ezarpenetara sartzea ahalbidetzen du.
- **Gurutzea.** Baliabidea edota jarduera behin betiko ezabatzea ahalbidetzen du, berreskuratzeko aukerarik izan gabe. Hura ezabatzean, harekin erlazionatuta dauden fitxategi guztiak ere desagertu egiten dira.
- **Begia.** Ikasleek baliabidea edota jarduera ikusgai dutela adierazten du.
- **Pertsonak.** Irakasleak bere ikastarorako definitu dituen taldeenganako osagai horrek daukan funtzionamendua adierazten dute ikono horiek. Irudi edo ikono horietako edozeinen gainean behin eta berriz sakatuta, ikonoa aldatuz joango da ziklikoki.
 - Pertsona bakarra irudikatzen duen ikonoak (Talderik ez) talderik ez dagoela adierazten du, baita osagai horretara ikasle guztiak sar daitezkeela eta berarekin lan egin dezaketela ere.
 - Pertsona bakarra eta itzal bat irudikatzen dituen ikonoak (Taldea banatuak) ikasle bakoitzak bere taldeko kideak soilik ikus ditzakeela adierazten du. Modu horretan, berarentzat gainerako ikasleak ez dira existitzen jarduera horretan.
 - Bi pertsona irudikatzen dituen ikonoak (Taldea ikusgai) ikasle bakoitzak jarduera hori bere taldearen barruan lantzen duela adierazten du, nahiz eta gainerakoen lana ere ikus dezakeen.



6.3 - Atalak aldatu

Ikastaro batek ezarpen-formularioan ezarritako adina atal izan ditzake. Guztiak zenbatu egiten dira, 1etik aurrera, baina beti dago zenbatu gabeko atal bat, ikastaroko lehendabizikoa, elementu orokorrak hartzera zuzenduta dagoena.

Ikastaroa asteroko formatuarekin ezartzen badugu, atal bakoitzak aste bat irudikatuko dugu. Ikastaroa gaietan oinarrituta badago, orduan askatasun gehiago izango dugu atal bakoitzean nahi duguna jartzeko.

Atalak mugitu egin daitezke ikastaroaren aurkezpen-ordena aldatzeko. Horrez gain, badago atalak ezkutatzeko edota ikusgai jartzeko aukerarik ere.



- **Laukia.** Hautatutako atala bakarrik bistara dadila ahalbidetzen du. Bere gainean sakatzen denean, gainerako atal guztiak bistaratzeko balio duen beste ikono bat azaltzen da.
- **Bonbilla.** Atala une horretan lantzen ari diren gai bezala markatuta ager dadila ahalbidetzen du. Gauzak horrela, kolore biziago batez azalduko da ikaslearen arreta erakartzeko.
- **Begia.** Atala ikasleentzat ikusgai dagoen ala ez adierazten du.
- **Gora eta behera geziak.** Atala bertikalki mugitzea ahalbidetzen dute.

7 - Blokeak

7.1 - Pertsonak

Pertsonak deritzon blokeak ikastaroan parte hartzen ari diren guztien zerrendara (*Partaideak* izenekora) garmatzen lotura dauka.



Iragazkiak aplika daitezke interesatzen zaigun informazioa bakarrik bistaratzeko: rolen arabera (Guztiak, Irakaslea, Ikaslea), taldeen arabera (talderik egonez gero) edota jarduerarik gabe izandako denboraren arabera.



| Erabiltzailearen irudia | Izena / Deitura | Hiria/Herria | Herria | Azken sarrera | Aukeratu |
|-------------------------|----------------------------|--------------|--------|-----------------|--------------------------|
| | José Ignacio Guzmán Alonso | Bilbao | España | 11 egun 19 ordu | <input type="checkbox"/> |
| | Alumno Alumno | Bilbao | Peru | Inoiz ez | <input type="checkbox"/> |
| | Al Perrutsa | Bilbao | España | Inoiz ez | <input type="checkbox"/> |

Partaideren baten izenaren gainean sakatuz gero, xehetasun-fitxa bat irekitzen da. Fitxa horretan inskripzio-datuak agertzeaz gain, honako beste datu hauek ere azaltzen dira:




- Gutun-azal itzurako ikono bat, emandako helbide elektronikoan mezurik jaso nahi den ala ez zehazteko.
- Pasahitza editatzeko botoia.
- Ikastaroan baja emateko botoia.
- Beste kontaktu batzuei mezuak bidaltzeko botoia.
- *Profila editatu* hegala, erabiltzailearen datu guztiak editatzeko. Horien artean honako hauek nabarmenduko genituzke:
 - **Postaren laburpen mota.** Erabiltzaileek harpidetuta dauden foroetatik bidaltzen dizkieten mezuak nola jaso nahi dituzten hauta dezakete. Hiru aukera daude: laburpenik gabea (erabiltzaileak banakako mezuak jasotzen ditu), osoa (erabiltzaileak laburpen bakar bat jasotzen du eguneko) edota gaikakoa (erabiltzaileak mezuen gaiekin bakarrik osatuta dagoen laburpen bakar bat jasotzen du eguneko).

- **Auto-harpidetza foroa.** Aukera honek erabiltzailea harpidetuta dagoen foroetako mezuen kopien bidalketa kontrolatzen du.
- **Foroaren araketa.** Foroen barrena egindako nabigazioa hobetzen laguntzen du, eta, horretarako, irakurri ez diren mezuak markatzen ditu.
- **Testua editatzean,** erabiltzaileak erabilitako nabigatzailea oraintsukoa bada, *HTML editorea erabili* aukerak testuei formatua ematea ahalbidetuko dio.
- **Foroko mezuak izeneko hegala.** Erabiltzaileak foroetara egindako ekarpenak erakusten ditu.
- **Bloga izeneko hegala.** Erabiltzaile bakoitzak publikoa den blog pertsonal bat izan dezake. Blogeko sarrera bat sortzeko, *Sarrera berria gehitu* estekaren gainean sakatu beharko du. Erabiltzaile bakoitzak sarrera berriari eman nahi dizkion etiketak hauta ditzake. Era askotako etiketak aukera daitezke. Blogeko sarrera norik ikus dezakeen ere aukera dezake erabiltzaileak.
- **Jardueraren txostenak izeneko hegala.** Aukera hau irakasleek edota administratzaileek bakarrik dute eskuragarri. Erabiltzaileak emandako urrats guztiak erregistratzen ditu. Informazio hori guztia fitxetan egituratuta bistaratzen da: *Txosten-diagrama, Txosten osoa, Gaurko erregistroak, Sarrera guztiak, Estatistikak eta Kalifikazioak.*
- **Rolak izeneko hegala.** Rolak esleitzeko eta ezabatzeko pantailara garamatza.

7.2 - Online erabiltzaileak

Administratzaileak ezarritako denbora-epe batean konektatu diren erabiltzaileak erakusten ditu (lehenetsitako denbora-epe 5 minutukoa da). Kurtsorea zerrendako erabiltzaile baten izenaren gainean mantentzen badugu, erabiltzaile horrek ikastaroan duela zenbat klikatu duen azalduko da. Erabiltzaile baten izenaren aldamenean dagoen gutun-azal itxurako ikonoaren gainean klikatzen badugu, mezu pribatu bat bidali ahalko diogu Moodle plataformako mezularitza-sistema erabilia.



7.3 - Jarduerak

Irakasleak ikastaroan zehar erabili dituen baliabideen eta jardueren kategoriak erakusten ditu.




7.4 - Foroetan bilatu

Ikastaroko foroetako mezuetan testua bilatzea (Googleren antzera) ahalbidetzen du. Bilaketa aurreratuko bertsio bat du bilaketa mugatzeko.



7.5 - Ikastaroak


Ikasle zein irakasle gisa egiten dihardugun ikastaro guztiak erakusten ditu. Beheko aldean *Ikastaro guztiak* esteka dago, eta horren bidez gunean dauden ikastaro guztiak ikus daitezke kategorietan multzokatuta.



7.6 - Berritasunak

Albisteen foroan argitaratutako azken berriak erakusten ditu.

7.7 - Egutegia



Honako ekitaldi hauek azaltzen dira:

- **Ekitaldi orokorrak.** Gune guztiarentzako garrantzitsuak diren datak dira. Talde guztiek ikus ditzakete eta Administratzaileak argitaratzen ditu.
- **Ikastaro-ekitaldiak.** Ikastaro jakin batean matrikulatuta dauden ikasleentzako garrantzitsuak diren datak dira. Elementu horiek ikastaroan parte hartzen duen orok izango ditu ikusgai, eta irakasleek bakarrik argitaratu ahal izango dituzte.
- **Talde-ekitaldiak.** Ikastaro-ekitaldien antzekoak dira, baina, kasu honetan, ikastaro jakin baten barruan sortutako talde jakin batzuei besterik ez diete eragiten.
- **Erabiltzaile-ekitaldiak.** Erabiltzaile bakoitzarentzako garrantzitsuak diren datak dira.

Epemuga duten Moodle programako jarduera guztiak egutegiko ekitaldi bihurtuko dira automatikoki.

Hilabetearen izenaren gainean sakatuz gero, leiho berri bat irekiko da. Bertan, honako hauek egin daitezke:

- Hainbat ekitaldi motaren bistaratzea aktibatu eta desaktibatu.
- Ekitaldi berri bat sortu.
- Egutegiaren aurkezpen-itxurak eta datozen ekitaldien abisuak ezarri.
- Egutegia beste aplikazio batzuetara esportatu.

Kurtsorea egutegiko ekitaldi baten gainera pasatzen denean, egun horretako ekitaldiei buruzko informazioa ematen duen leiho txiki bat zabalitzen da. Ekitaldiaren izenaren gainean edota egun horren gainean klik eginda, egunaren ikuspegira pasatuko gara.

Komenigarria da ikastaro guztiak hautatuta edukitzea ikuspegi orokor bat izan ahal izateko.

7.8 - Datozen ekitaldiak

Dagoeneko ikusi dugu ekitaldiak egutegian programa daitezkeela eta epemuga duten Moodle programako jarduerak guztiak egutegiko ekitaldi bihurtzen direla automatikoki. Moodle programak datozen ekitaldi gisa hartu behar dituenak modu horretan har ditzan zenbait ezarpen egin behar dira, eta horiek *Egutegia* moduluko hobespen-orrian egiten dira.

7.9 - Duela gutxiko aktibitatea

Ikastaroan egondako azken alditik izandako gertaerak aurkezten ditu, besteak beste, erabiltzaile berriak, ikastaroko elementu berriak (zereginak, galdetegiak...) edota foroetako mezu berriak.

Oso garrantzitsua da zera argi izatea: elementu bat duela gutxiko aktibitate edo jarduerak gisa hartzeko sistemak darabiltzan irizpideak konexioaren ordua eta data besterik ez direla. Horrek esan nahi du

nabigatzailea guztiz itxi, sistematik atera eta segidan berriz sartzen bagara, duela gutxiko aktibitate gisa markatuta zeuden mezuak desagertu egin direla ikusiko dugula eta panela hutsik egongo dela. Duela gutxiko aktibitatea ikusteko, sistemaren konexioak eta deskonexioak kontuan hartu gabe, *Duela gutxiko aktibitatearen txosten osoa* deritzon lotura klikatu behar da.



7.10 - Ikastaroaren deskripzioa

Ikastaroaren laburpenean sartutako testua erakusten du. Laburpen hori ikastaroaren ezarpen-formularioan aurki daiteke, baita *Portadako doiketak* izeneko orrian guneari buruz egiten den deskripzioan ere. Irudiak eta estekak erabil daitezke bertan.

7.11 - Ataletara joateko estekak

Ikastaroko atalen artean batetik bestera azkar nabigatzeko balio dute.



7.12 - HTML

Informazio "konplexua" erakusten du ikastaroaren orri nagusian. Konfiguratzeko, arkatz baten itxura duen ikonoaren gainean sakatu eta HTML editorea azalduko da, eta bertan nahi dugun kodea sartu ahal izango dugu.

7.13 - Mezuak

Erabiltzaile guztiek eskuragarri duten hitz egiteko gunea edo txata da. Beraz, denbora errealeko komunikazio-sistema da, posta elektronikoan mezuen kopiak jasotzeko aukera eskaintzen duena. Baditu beste zenbait propietate ere, besteak beste, erabiltzaileak blokeatzea, historia edota HTML editorea.



Mezu bat bidaltzeko, *Mezuak* esteka klikatu eta norekin (zein erabiltzailerekin) hitz egin nahi dugun hautatu behar dugu. Erabiltzailea ez badago zerrendan, gaineratu egin beharko da, eta, horretarako, *Bilatu* aukera sakatu eta haren izena idatziko dugu. Behin aurkituta, kontaktu-fitxa zabaldu eta hiru ikono

agertuko dira. Lehendabizikoa kontaktua gure zerrendara gaineratzeko da; bigarrena kontaktua blokeatzeko, eta, hirugarrena, berriz, erabiltzaile horrekin izan dugun mezu-trukaketaren historia ikusteko.

Online dauden erabiltzaileak izeneko multzotik ere mezu bat bidal diezaiokegu erabiltzaile bati, eta, ondoren, gure kontaktu-zerrendara gaineratu. Gutun-azala ikonoarekin beste leiho bat irekiko dugu, eta bertan aurretik aipatu ditugun hiru funtzioak izango ditugu.

Mezularitzako *Doiketak* atalean, hainbat zerbitzu konfiguratu ahal izateaz gain, konektatu ez gaudenean jaso ditugun mezuak posta bidez gure helbide elektronikora bidaltzea agin dezakegu.

7.14 - Galdetegiaren emaitzak

Denbora errealeko galdetegi batean erabiltzaileek lortutako emaitzak bistaratzeko ditugu.

Blokea eranstean denean, honako mezu honekin batera azaltzen da: "Akats bat dago bloke honekin. Galdetegi bat hautatu behar duzu haren emaitzak erakusteko". Blokearen ediziorako ikonoan klik bat eginez ezarpenen leihora sartuko gara.

7.15 - Glosategiko ausazko sarrera

Ikastarora sartzen garen bakoitzean, hautatutako glosategiko sarrera berri bat bistaratzeko du.

Edizio-botoiaren gainean sakatzen dugunean, honako datu hauek agertzen dira, besteak beste:

- Beste sarrera bat bistaratu aurretik igaro beharreko epea, egunetan neurituta. 0 balioa hautatzeak ikastaroaren orri nagusira sartzen garen bakoitzean bistaratu den sarrera desberdina izatea dakar berarekin.
- Sarrera berria nola hautatuko den. Balio lehenetsia *Ausazko sarrera* da.
- Terminoen glosategi bati buruz ari bagara, adibidez, gomendagarria da *Sarrera bakoitzeko kontzeptua (goiburua) erakutsi* deritzon hautazko laukitxoa gaituta izatea.

7.16 - Urrutiko RSS kanalak

Beste webgune batzuetako RSS kanaletako edukiak erakustea ahalbidetzen du.

Konfiguratzeko, edizio-ikonoaren gainean klikatu behar da, eta albiste-kanaletako URL helbideak gaineratu.

Administratzailearen zeregina izango da irakasleek kanalak gaineratu eta kudeatu ahal izateko erantza konfiguratzeko blokea. Horrela egiten ez bada, administratzaileak bakarrik izango du kanalak gaineratu eta kudeatzeko gaitasuna.

7.17 - Administrazioa




- **Edizioa aktibatu.** Ikastaroaren nabigazio-barraren eskuinaldean aurki dezakegun botoi bera da. Edizioa aktibatuta ez dagoen bitartean, ezin izango da jarduerarik edota baliabiderik sartu.
- **Ezarpinak.** Ikastaroaren ezarpen-formulariora sarbidea ematen du. Bertatik ikastaroaren izena, formatua, deskripzioa, sarbide-baimenak, eta abar aldatu ahalko dugu.
- **Rolak esleitu.** Rolak esleitzeko edota bertan behera uzteko pantailara garamatza. Gogoan izan, rol bat erabiltzaile batek testuinguru jakin batean daukan estatusaren identifikatzailea dela.
- **Kalifikazioak.** Ikasleek ebalua daitezkeen jarduera guztietako euren kalifikazioak ikus ditzakete. Irakasleak ikasle guztien kalifikazioak ikusiko ditu.
- **Taldeak.** Ikasleen taldekako kudeaketa.
- **Segurtasun-kopia.** Ikastaroaren inguruko segurtasun-kopiak egiteko.
- **Berreskuratu.** Aurretiaz egindako segurtasun-kopia bat berreskuratu.
- **Inportatu.** Baliabideak eta jarduerak beste ikastaro batetik inportatzeko.
- **Berrabiarazi.** Ikastaro batetik erabiltzaileen datuak garbitzea ahalbidetzen du, baina jarduerak eta beste zenbait ezarpen mantenduz.
- **Txostenak.** Erabiltzaileek hautatutako aukeren eta jardueren erregistroei, jardunari eta estatistikei buruzko txostenak eskaintzen dizkigu (adibidez, saioa noiz hasi duten, zer egin duten, eta abar).
- **Galderak.** Ikastaroko galdera sorta bateko galderak sortzeko edota aldatzeko erabil dezakegu. Galdera horiek ikastaroko edozein galdetegitan edota ikasgaitan erabili ahalko dira.
- **Fitxategiak.** Ikastaroko fitxategien karpetara garamatza.
- **Moodle plataformatik kendu.** Ikastaro batean matrikulatzea edota ikastaroko matrikula uztea ahalbidetzen du.

8 - Baliabideak

Estatikoak diren ikastaroko eduki didaktikoak dira baliabideak. Ikasleak irakurri, estudiatu edota buruz ikasi beharko duen edukia da, baina ezin izango du harekin inolako elkarrekintzarik egin, ezingo du aldatu.

8.1 - HTML editorea

HTML testuaren editoreak testu-lanketako programa batek ematen duen antzeko interfazea eskaintzen du testuarekin batera sartutako elementuei (irudiak, taulak, karaktere bereziak...) dagokien HTML kodea modu erraz batean sortzeko, baita testuari berari formatua emateko ere.



Egin daitezkeen gauzen artean honako hauek nabarmen ditzakegu (ezkerretik eskuinera eta goitik behera):

- Letra-tipoa hautatu.
- Letra-tipoaren tamaina hautatu.
- Estiloa hautatu.
- Hizkuntza hautatu.
- Aurretik aukeratu dugun testu zati bati formatua eman: letrakera lodia, letrakera etzana, azpimarratua eta marratua.
- Azpi-indizeak eta goi-indizeak jarri.
- Word-eko HTML kodea garbitu. Wordetik testua kopia eta behar ez ditugun etiketak (tag) ezabatzeko balio du.
- Desegin eta berregin.
- Testuaren lerrokadura-aukerak: ezker-lerrokadura, erdian, eskuin-lerrokadura eta lerrokatuta.
- Testuaren noranzkoak, ezkerretik eskuinera eta eskuinetik ezkerre. Ezkerretik eskuinera idazten duten hizkuntzetan erabil daiteke.
- Zenbakidun zerrendak eta buletdun zerrendak sortu.
- Ezkerrean eta eskuinean koskak ezarri.
- Testuaren eta hondoaren kolorea aldatu. Botoi hauek kolore-paleta leiho berri batean aktibatzen dute. Nahikoa da nahi dugun kolorearen gaineratik saguarekin igarotzea edota agertzen den testu-koadroan haren kodea idaztea.
- Lerro banatzaileak trazatu.
- Aingurak sortu. Orri bereko gune desberdinen artean loturak ezartzeko balio du. Estekekin batera erabiltzen dira.
- Esteka bat txertatu eta apurtu.
- Glosategira doan esteka bat bertan behera utzi. Glosategira estekatuta dauden hitzen gehiegizko errepikapena saihesteko erabiltzen da, baita nahi ez diren estekak ekiditeko ere.
- Irudi bat txertatu.
- Taula bat txertatu.
- Aurpegierak txertatu.
- Karaktere bereziak txertatu.
- Testua bilatu eta ordezkatu.
- HTML markak edo etiketak gehitu.
- Editorea handitu eta txikitu.

8.2 - Etiketak


Ikastaroaren orri nagusian agertzen diren testu zati txikiak dira. Ikastaroa egituratzeko erabiltzen dira batez ere. HTML editore baten bidez sartzeko da, beraz, testua, irudiak edota multimedia-fitxategiak gainera daitezke. Honako kode honekin orri berean beste orri bat txerta daiteke estekarik erabili gabe.

```
<iframe width="100%" height="200" align="middle" src="dirección URL" border="0"></iframe>
```

8.3 - Testu-orriak

Testu-orri bat formaturik gabeko testu bat da, inolako estiloric (letrakera lodia, letrakera etzana...) eta egiturarik (zerrendak, taulak...) gabea. Horrek ez du esan nahi baliabide horrek ezin duela estiloric edo egiturarik eduki, baina sintaxi esplizitu bat erabilita lortu behar da.

Testu-orri motako baliabide bat gaineratzeko, edizio-modua aktibatu behar dugu eta *Testu-orria sortu* aukera hautatu *Baliabidea gehitu* izeneko goitibeherako zerrendatik.



Formulario bat agertuko da, eta bertan honako parametro hauek ezarri beharko ditugu:

- Identifikazio-izena
- Laburpena. Elementuaren deskripzio laburra
- Testua
- Formatua
 - Testu laua. Ez du inongo formaturik. Sartzan den modu berean bistaritzen da orrian.
 - Automatikoa: Formatu gutxi batzuekin onartzen du testua.
 - Hiperestekak. `www.` edota `http://` bidez hasten den testu oro zehazten den helbidera joango den hiperesteka bihurtuko da.
 - Aurpegiarak. Emozioa adierazteko erabiltzen diren testu-formak irudi bihurtuko dira.
 - HTML marka gutxi batzuk erabil daitezke testu-formatuak adierazteko. Markak testuan txertatuta egon behar dute, baina lerroak ezin daitezke HTML marka batekin hasi edo bukatu. Horrela gertatuz gero, baliabidea ez da modu egokian bistaratu.


```

                            <b> Letrakera lodia </b> edota <strong> Letrakera lodia </strong>
                            <i> Letrakera etzana </i> edota <em> Letrakera etzana </em>
                            <u> Azpimarratua </u>
                            <span style="font-size:1"> Txikia </span>
                            <span style="font-size:14"> Handia </span>
                            <span style="color:green"> Adibidea </span>
                            <ul><li>bat</li> <li>bi</li> </ul>
                            
```
 - HTML. HTML kodearekin maketatutako edozein testu sar daiteke. Horrek HTML kodeari buruzko ezagutzak izatea eskatzen du.
 - MARKDOWN. Testua HTML kodearekin baino modu errazagoan maketatzeko sortu da. Informazio gehiago <http://daringfireball.net/projects/markdown/basics> helbidean.
- Irekiera-leihoak. Testua zabalduko den leihoa.
- Ikusgai edo ikusezin.

8.4 - Web orria

Moodle plataforman edukia sortzeko erarik ohikoena da, aurrez aipatu diren elementu guztiak barne hartzen baititu. Web orriak sortzeko erabiltzen dugun HTML prozesadoreak (adibidez, Dreamweaver)

sortutako kodea zuzenean editorean txertatu ohi da, edota bestela testuari HTML editorean bertan ematen zaio formatua.

8.5 - Fitxategi edo webgune batera lotu


Irakasleak webeko edozein orrirekin edota fitxategirekin lotu dezake baliabide bat, baita fitxategiak hostatzeko ikastaroak berak duen gunera aurretiaz igotako beste web orri edo fitxategi batekin ere.

Bete beharreko formularioa honako hau da:

- **Identifikazio-izena**
- **Laburpena.** Elementuaren deskripzio laburra
- Fitxategira edo webgunera lotura




Zuzenean helbidea itsatsi, orri bat bilatu edota ikastaroaren beraren karpeta-kudeatzaileira fitxategi bat igo daiteke. Azken kasu horretan, fitxategiak gordeko dituzten karpeta-egitura bat sor daiteke. Hori egiteko, nahikoa da *Direktorio bat sortu* botoia klikatzea.



| Izena | Tamaina | Aldatuta | Ekintza |
|---|---------|---|---|
| Goragoko direktorioa | | | |
| <input type="checkbox"/> Auto-evaluacion_Matriz.doc | 82.5KB | 2009(e)ko iraila(r)en 22(a)n, 16:11etan | Aukeratu Berrizendatu |
| <input type="checkbox"/> Diseno_instruccional.doc | 79KB | 2009(e)ko iraila(r)en 22(a)n, 16:11etan | Aukeratu Berrizendatu |
| <input type="checkbox"/> GG_ZZ_GKD_EEA_13-11-07.doc | 260KB | 2009(e)ko iraila(r)en 22(a)n, 16:11etan | Aukeratu Berrizendatu |
| <input type="checkbox"/> Plantilla_autoevaluacion.doc | 35.5KB | 2009(e)ko iraila(r)en 22(a)n, 16:11etan | Aukeratu Berrizendatu |
| <input type="checkbox"/> Txantxiloa.dot | 72.5KB | 2009(e)ko iraila(r)en 22(a)n, 16:11etan | Aukeratu Berrizendatu |
| <input type="checkbox"/> ddc_cc_ss_071113.doc | 218KB | 2009(e)ko iraila(r)en 22(a)n, 16:11etan | Aukeratu Berrizendatu |

Behin edukiontzi lanak egingo dituen karpetan egonda, fitxategi bat igo nahi izanez gero, *Fitxategia igo* aukera sakatu eta gure ordenagailuko karpeten artean bilatu beharko dugu.



Fitxategi batera lotura sortzeko, nahikoa da *Hautatu* sakatzea; era horretan, lotura automatikoki kargatuko da eremuan.

- Irekiera-leiho. Testua zabalduko den leihoa.
- Ikusgai edo ikusezin

8.6 - Direktorioa erakutsi

Baliabide honek Moodle plataformako fitxategi-kudeatzailearen orria erakusten du, eta bertan fitxategien zerrenda bat daukan karpeta dago. Ikasleek karpeta horretara sartzeko, bertako fitxategi guztiak ikusteko eta haietan barrena nabigatzeko ahalmena dute. Erabilgarria da karpeta horrek fitxategi ugari baditu, haiek baliabide gisa banan-banan estekatzea pentsaezina bailitzateke bestela. Fitxategien konpresioari dagokionez ere onuragarria da (adibidez, .ZIP formatuan), ez baitu derrigortzen fitxategi guztiak jaistera eta dituen fitxategi guztien izenak erakusten ditu.

Ikasleei erakutsi beharreko karpeta hautaketa baliabidearen ezarpen-formularioko *Direktorioa erakutsi* eremuan egingo da. Karpeta hori sortzea eta bere barruan fitxategiak jartzea Moodle plataformako fitxategi-kudeatzailearen bidez egingo dira.

Direktorioa erakutsi

Direktorioa erakutsi

Moduluaren ezarpen bateratuak

Ikusgai

ID zenbakia

Direktorio nagusia

Direktorio nagusia

dokumentu_oroak

mod_accidentes

mod_accidentes/mapas

mod_cartograf

mod_cartograf/mod_cartograf_imagenes

mod_fuentes

mod_fuentes/mod_fuentes_doc

mod_terrem

mod_terrem/mod_terram_doc

Erakutsi Utzi

Formulario honetan derrigorrezko eremuak daude

8.7 - IMS eduki-paketeak

Edukiak estandarra den formatu batean biltegitratzea ahalbidetzen du, hainbat sistematan berrerabilia izan daitekeena, aipatutako edukiak beste formatu batzuetara aldatu beharrik izan gabe.

9 - Jarduerak

Jarduerak ikastaroaren eduki dinamikoa dira. Ikasleek jarduerak egin, bete eta aldatu ahal izango dituzte.

9.1 - Galdetegiak

- Galdera mota ugari (aukera anitzekoa, egiazkoa/faltsua, erantzun laburra, hutsuneak bete, eta abar) galdetegiak sor daitezke.
- Galderak kategoriaka antolatzen dira galdera-biltegi baten barruan, eta ikastaro berean edota beste batzuetan erabil daitezke berriro.
- Ausazko galdetegiak sor daitezke galdera-biltegian gordeta dauden galderak oinarritzat hartuta.
- Galderak HTML kodean sor daitezke, multimedia-elementuak izanik, eta kanpoko testu-fitxategietatik inporta daitezke.
- Galdetegiak iraungitze-epe bat izan dezakete, eta behin hura igarota ez dira eskuragarri egongo.
- Galdetegietako galderak eta erantzunak ausaz nahas daitezke ikasleen arteko kopiatzeak zailtzeko asmoarekin.
- Ikasleei galdera baten inguruan hainbat saiakera egiten utz diezaiekegu edota galdetegia zenbait aldiz erantzuten (saiakera bakoitza aurrekoaren gainean eraikitzeko aukerarekin).
- Saiakera bakoitza erregistratu eta kalifikatu egingo da, eta irakasleak aukeratuko du jarduera bukatzean iruzkinen bat edota erantzun zuzenak erakutsi behar dituen ala ez.
- Galdetegi bat hainbat saiotan bete daiteke, aurreko saioan utzitako orritik hasteko aukera izanik.

Honako hauek dira ikastaro batean galdetegi bat sortzeko jarraitu beharreko urratsak:

- Nahi diren galdera guztiekin galdera-biltegi bat sortu. Gero, galdera horiek galdetegi baten, biren edota galdetegi gehiagoren parte izango dira. Gerta daiteke zenbait galdera inongo galdetegitan ez agertzea.
- Jardueren goitibeherako zerrendan *Galdetegia* jarduera hautatzean agertzen den formularioaren bidez galdetegia sortu.
- Dagoeneko sortu dugun galdetegiari galderak esleitu.




9.1.1 - Galdera-biltegia sortu


Gure Moodle ikastaroari dagokion galdera-biltegiara sartzeko, ikastaroaren administrazio-blokean dagoen *Galderak* esteka erabil dezakegu. Behin sartuta, honako ekintza hauek egin ditzakegu:

- **Kategoriak sortu eta editatu.** Galderak kategorien arabera sailka daitezke. Katgoria horien ordena eta edukia sortzeko eta aldatzeko, *Kategoriak* hegalerara joango gara.

Leihoaren goiko aldean, dagoeneko sortuta dauden kategorietan aldaketak egiteko aukerak aurkituko ditugu; beheko aldean, berriz, katgoria berri bat sortzeko formularioa dago. Bertan, katgoria sortu berriaren katgoria nagusia zein izango den hautatzeko parada dago, azpikategoriak sortzea baimenduta baitago.



- **Galderak sortu.** *Galderak* hegalean gure galdera-biltegian dagoeneko egon badauden galderen zerrenda aurkituko dugu.



Goiko aldean, bistaratu nahi dugun kategoria hauta dezakegu; behekoan, aldiz, kategoria horretan jadanik kargatuta dauden galderen zerrenda. Zerrenda horretan galdera bakoitza editatzeko ikonoak azaltzen dira.

Pantailaren erdialdean *Galdera berria sortu* aukera ikus dezakegu, goitibeherako zerrenda bat aldamenean duela. Goitibeherako horretan nolako galdera mota sortu nahi dugun hautatu beharko dugu. Behin galdera motaren hautaketa eginda, galderaren edukia sartzeko formulario bat azalduko da, eta hura bete beharko dugu.

Honako hauek dira galdera mota ohikoenak:

- **Aukera anitzekoa.** Test erako ohiko galdera da, eta erantzun bakarra edota erantzun anitzak izan ditzake.
 - **Egiazkoa/faltsua.** Planteatzen den esaldiaren aurrean *egiazkoa* edota *faltsua* erantzutea eskatzen duten galderak dira.
 - **Erantzun laburrekoa.** Erantzun zehatz bat (beste aukerarik onartzen ez duena) espero denean egiten da galdera hau. Ikasleak emandako erantzuna irakasleak zuzentzat jo duen erantzun sortarekin alderatuta egiten da zuzenketa.
 - **Zenbakizkoa.** Honen emaitza errore-marjina txikia onartzen duen zenbaki bat da.
 - **Bikoteak egitekoa.** Elementu bat goitibeherako zerrenda batean agertzen den beste elementu batekin lotzea eskatzen duen ariketa. Guztiok ezagutzen dugun *zutabeak elkartu* deritzon jokoa bezalakoa da.
 - **Kalkulatzekoak.** Irakasleak emandako formula batetik abiatuta, Moodle programak automatikoki sortzen duen adierazpen matematiko baten emaitza bilatu behar da.
 - **Cloze.** Galdera mota malgua da (*Cloze* ezagunaren antzekoa), Moodle formatudun testu batean aukera anitzeko galderak, erantzun laburrekoak eta zenbakizkoak sartzea ahalbidetzen duena.
 - **Saiakera.** Saiakera-formatuan erantzutea eskatzen zaio ikasleari; hori dela eta, irakaslearen ardura izango da erantzunen zuzenketa.
 - **Erantzun laburrak ausaz parekatu.** Moodle programak, erantzun laburreko galderetatik abiatuta, bikoteak egin motako galderak sortzen ditu automatikoki.
 - **Deskripzioa.** Ez da galdera bat, baizik eta galdetegiaren inguruan ikasleari informazioaren bat (jarraibideak, kalifikazio-metodoak...) emateko erabiltzen den testua.
- **Galderak inportatu eta esportatu.** Gure ikastaroetan berrerabiltzeko asmoarekin, beste formatu batzuetan egindako galderak inportatzea ahalbidetzen du Moodle plataformak. Onartzen dituen formaturik ezagunenak GIFT, Cloze, Hot Potatoes, Blackboard, eta abar dira. Inportatu ahal dituen era berean, esportatu ere egin ditzake.

9.1.2 - Galdetegi bat sortu

Gure ikastaroan galdetegi bat sortzean bete behar den formularioa:

- **Izena**
- **Sarrera.** Galdetegia egiten hasten diren bakoitzean ikasleei agertuko zaien testua.
- **Galdetegia zabaldu.** Galdetegia ireki zeneko data zehazten die ikasleei.
- **Galdetegia itxi.** Data horietatik kanpora ikasleek ez dute galdetegia eskuragarri izango.
- **Denbora-muga.** Posible da denbora-muga bat zehaztea ikasleei galdetegia epe horren barruan egin dezaten derrigortzeko. Kasu horretan leiho txiki bat aterako da, zenbat denbora geratzen den uneoro erakutsiko duena. Epea iraungitzen denean, galdetegia automatikoki bidaltzen da ordura arte bete diren erantzunekin. Ikasleren batek bere ordenagailuko ordutegia manipulatzeko badu, eta bidalketa-denboran 60 segundo baino gehiagoko aldea antzematen bada, galdetegia automatikoki zero batekin kalifikatzen da. Ezaugarri honek funtzionatuko badu, nabigatzaileak Javascript2 onartu beharko du.
- **Lehen eta bigarren saiakeren arteko denbora-tartea.**
- **Ondorengo saiakeren arteko denbora-tartea.** Galdetegia hirugarren aldiz edo gehiagotan erantzuten saiatu ahal izateko ikasleak itxaron beharko duen denbora zehazten du.
- **Orri bakoitzeko gehienezko galdera kopurua.**
- **Galderak nahasi.** Galderak ausaz ordenatzen dira. Ez du ausazko galderen sorrerarekin zerikusirik.
- **Galderen barruan nahasi.** Erantzunak nahasi.
- **Baimendutako saiakerak.** Galdetegia ebazteko zenbat saiakera egin daitezkeen zehazten du. Saiakera kopuru mugagabea ezar daiteke (adibidez, autoebaluaziorako edo ikasitakoa sendotzeko galdetegietan) edota 1 eta 6 bitartekoa.


- **Saiakera bakoitza azkenengoan oinarritzen da.** Saiakera bat baino gehiago baimentzen badira, aukera honek aurreko saiakeran emandako erantzunak ikusteko parada ematen dio ikasleari. Modu horretan, galdera bat hainbat saialdiren bidez bete daiteke. Saiakera bakoitzean aurreko erantzuna ez bistaratzeko, *Ez* hautatu behar da.
- **Modu moldagarria.** Ikasleak galdetegiko galdera bat behin baino gehiagotan erantzun ahal izango du, haren lehen erantzuna okerra izan baldin bada; hala ere, normalean zigor bat ezarriko zaio. Zigor horren faktorea indibidualki ezarriko da galdera bakoitza sortzen edota editatzen denean.

Modu moldagarrian galdera bakoitzarekin batera *Bidali* botoi osagarria agertzen da. Ikasleak botoi hori sakatzen badu, bere erantzuna bidali eta dagokion kalifikazioa azalduko zaio. Galdera moldagarria bada eta ikaslearen erantzuna okerra bada, ikaslearen erantzuna kontuan hartuko duen egoera berri bat planteatuko zaio. Galdera moldagarri sinpleenetan, egoera berri hori ikasleari berriro erantzun dezala eskatzea eta atzeraelikadura-testu (*feedback*) desberdin bat erakustea izan daiteke. Galdera konplexuenetan, galderaren testua zein elkarreragintzako elementuak alda daitezke. Aipatutako modu honek zera ahalbidetzen du: huts baten ostean, ikasleari aurkezten zaion bigarren galdera emandako erantzun okerraren arabera izatea.

- **Kalifikazio metodoa.** Saiakera bat baino gehiago egin daitekeen galdetegiaren, gordeko den kalifikazioa honako hau izan daiteke: egindako saiakeretako puntuazio altuena, saiakera guztien batez bestekoa, lehendabiziko saiakerako puntuazioa edota azken saiakerako puntuazioa.
- **Zigorrak ezarri.** Galdetegi bat modu moldagarrian exekutatzen bada, galdera bat oker erantzun ostean beste behin erantzuten utziko zaio ikasleari. Kasu horretan, aukera hori aktibatzean, oker erantzuten den erantzun bakoitzeko zigor bat aplikatuko da, eta galderaren azken puntuazioari horren kenketa egingo zaio. Zigorren faktorea indibidualki hautatzen da galdera bakoitzerako hura sortzen edota editatzen denean. Beraz, parametro honek metodo moldagarria aktibatzen denean bakarrik balio du.
- **Dezimal kopurua kalifikazioetan**
- **Berrikusteko aukera.** Atal honetan kontrol-lauki batzuk daude, ikasleek galdetegiaren ebazpen-saiakerak berrikus ditzaketen ala ez eta zein mementotan egin dezaketen kontrolatzen dute.
- **Galdetegia leiho "seguruan" erakutsi.**
- **Pasahitza eskatu.** Pasahitza behar da galdetegira sartzeko.
- **Sare-helbidea eskatu.** Sare-helbide bat behar da, IP helbide bitarte batera murriztutakoa.
- **Talde-modua.** Lantaldeetako kideen arteko elkarrekintza-era ezartzen du:
 - *Talderik ez.* Ikasle guztiek talde bakar bat osatuko dute.
 - *Taldeek ezin dute elkar ikusi.* Talde bateko ikasleek haien taldea ikus dezakete bakarrik.
 - *Taldeek elkar ikusten dute.* Ikasle bakoitzak bere taldearen barruan egingo du lan, baina gainontzeko taldeen lana ikusi ahal izango du.
- **Talde-modua bi mailatan zehatz daiteke:**
 - **Ikastaroaren arabera.** Ikastaroaren arabera zehaztutako talde-modua ikastaro barruko jarduera guztietarako lehenetsita dator.
 - **Jardueraren arabera.** Taldeak onartzen dituen jarduera orok taldekatzeko bere era propioa zehatz dezake. Ikastaroa *Talde-modua behartu* eran konfiguratuta badago, ez dira aintzat hartuko jarduera bakoitzaren ezarpenak.
- **Ikusgarri.** Galdetegia erakustea edota ezkutatzea ahalbidetzen du.
- **Feedback orokorra.** Galdetegia ebazteko saiakera bat egiten duenean, ikasleak ikusiko duen testua. Testu hori lortutako kalifikazioaren arabera izan daiteke.

9.1.3 - Galdetegiari galderak esleitu

Gure galdetegira galderak esleitzea oso erraza da. Azpiko irudian ikus daitekeenez, ezkerrean (1) gure galdetegian kargatuta ditugun galderak daude (hasiera batean hutsik egongo da). Eskuinean, berriz, galdera-biltegiko galdera guztiak daude (2).



Esleipena galderaz galdera egin ahalko dugu, galdera bakoitzaren aldamenean dauden eta ezkerreko noranzkoa duten gezien bidez, baina baita nahi diren galdera guztiak hautatu eta *Gehitu galdetegira* (3) botoiari emanda ere.

Galdetegitik kentzeko, nahikoa izango da galdera bakoitzaren aldamenean dauden eta eskuineko noranzkoa duten geziei eragitea.

9.1.4 - Galdetegi bat kalifikatu

Galdetegi bateko galdera gehienak automatikoki zuzentzen dira. Ikasleek izan dituzten emaitzak ikusteko, *Kudeaketa* blokeko *Kalifikazioak* izeneko aukerara joan behar dugu.

Ikastaroak dituen galdetegi eta zeregin guztiak zutabeen bidez azalduko zaizkigu; ilaretan, ordea, matrikulatutako ikasleak agertuko dira. Era horretan, modu erraz batean ikus dezakegu ikasle bakoitzak zein galdetegi egin duen eta zein nota lortu duen.

| Kalifikatzailea | | | |
|------------------------------|------------------|------------|--------------------|
| Izena / Deitura | Gizer-demo | | |
| | Ejercicio ACCEdu | Demo Gizer | Ikastaroan guztira |
| Alumno1 Demo | 100.00 | - | 100.00 |
| Alumno2 Demo | 45.00 | - | 45.00 |
| Alumno3 Demo | - | - | - |
| Batezbesteko orokorra | 72.50 | - | 72.50 |

Galdetegi zehatz batean arreta jarri nahi badugu, galdetegiaren gainean klikatuko dugu eta antzeko taula bat agertuko zaigu, baina zutabe gisa galdetegia osatzen duten galderak besterik ez ditu izango, ikasleak emandako erantzunak eta erantzun bakoitzean izandako emaitzak xehetasunez ikusi ahal izateko.

Kalifikazioak **Berriz kalifikatu** Eskuzko kalifikazioa Elementuen analisisa Ikusi ikastaroko kalifikazio guztiak

Saiakerak: 4

Erabiltzaile bakoitzarentzat kalifikatutako eta kalifikatu gabeko saiakerak erakusten. Erabiltzaile bakoitzarentzat kalifikatutako saiakera bakarra nabarmenduta dago. Galdetegi honetan kalifikazio-metodoa **Notarik altuena** da.

| Izena / Deitura | Noiz hasita | Osatua | Emandako denbora | Nota/10 | #1 | #2 | #3 | #4 | #5 |
|-----------------------------|---------------------------------------|---------------------------------------|---------------------|---------|-----|-----|-----|-----|-----|
| alumno0 alumno0 | 2009(e)ko urria(r)en 5(a)n, 22:17etan | 2009(e)ko urria(r)en 5(a)n, 22:19etan | 2 minutu 14 segundu | 7 | 2/2 | 2/2 | 2/2 | 0/2 | 1/2 |
| Alumno 1 | 2009(e)ko urria(r)en 6(a)n, 08:18etan | 2009(e)ko urria(r)en 6(a)n, 08:18etan | 38 segundu | 5 | 0/2 | 0/2 | 1/2 | 2/2 | 0/2 |
| María Calzada Huerta | 2009(e)ko urria(r)en 7(a)n, 23:13etan | - | zabalik | - | -2 | -2 | -2 | -2 | -2 |
| Antón Villanueva Echevarría | 2009(e)ko urria(r)en 7(a)n, 19:11etan | - | zabalik | - | -2 | -2 | -2 | -2 | -2 |
| Batezbesteko orokorra | | | | 7 | 2/2 | 2/2 | 2/2 | 0/2 | 1/2 |

Denak aukeratu / Guztiak alde batera utzi **Ezabatu aukeratutako saiakerak**

ODS formatuan jaitsi **Excel-formatuan jaitsi** **Testu-formatuan jaitsi**

Zure hobespenak orri honetarako

Erakutsi / jaitsi **saiakera guztiak**

Erakutsi / jaitsi erabiltzaile bakoitzarentzat kalifikatutako saiakera bakarrak (Notarik altuena)


Zure hobespenak txosten honetarako


Oriaren tamaina: 30

Erakutsi / jaitsi galdera bakoitzerako markak **Bai**

Erakutsi txostena

Galderaren bat saiakera motakoa bada, kalifikazioa eskuz egin beharko dugu. Horretarako, galdera horren laukiaren gainean klikatu beharko dugu ikasle bakoitzeko; behin hori eginda, ariketaren laburpena zein ikasleak egindako bidalketen laburpena aurkeztuko digun leiho bat irekiko zaigu.

| | |
|--|--|
|  | alumno0 alumno0 |
| Galdetegia: | Cuestionario |
| Noiz bukatua: | asteartea, 2009(e)ko urria(r)en 6(a)n, 19:45(e)tan |

5  Escribe brevemente que has hecho en tus vacaciones (máximo 6 Puntuaklíneas).

1

Erantzuna: Oporretan Bilbon geratu nintzen.


Iruzkina egin edo ez kalifikatu

Egokia zati batean
Bidalketa honen emaitzak: 0.5/1. Bidalketa honek ez dizu kenketarik ekarri.

Ebazpenen historiala:

| # | Ekintza | Ebazpena | Ordua | Puntuazio gordina | Nota |
|---|----------------------|----------------------------------|---------------------|-------------------|------|
| 1 | Bidali | Oporretan Bilbon geratu nintzen. | 22:19:15 on 5/10/09 | 0 | 0 |
| 2 | Eskuzko kalifikazioa | Oporretan Bilbon geratu nintzen. | 19:45:57 on 6/10/09 | 0.5 | 0.5 |

Kalifikatzeko, *Iruzkina egin edo ez kalifikatu* esteka klikatu behar da. Ondoren, ikasleari egin nahi zaion edozein iruzkin idazteko edota nota jartzeko leiho bat irekiko da.



9.2 - Ikasgaia

Ikasgaiak ikasleari gai jakin baten inguruan informazioa eskaintzeko erabiltzen dira. Oro har, edukia banaka bistaratuko diren zati txikietan edota orrietan banatuta dago. Hautazko aukera gisa, adarkatze-taulak izan ditzake, hau da, orriko azken galderari erantzundakoaren arabera ikasleak jarrai ditzakeen ibilbide desberdinak.

Ezaugarriak:

- Edukiak zehazten du zein izango den ikasgai baten orri kopurua. Diseinu-fasean irakasleak orrien aurkezpen-ordena jakin bat zehaztuko du ikasleek edukiak ahalik eta errazen uler ditzaten. Ordena horri ordena logikoa deritzo.
- Orri bakoitzak informazio jakin bat ematen du, eta, normalean, orri horretan aurkeztutako informazioari buruzko galdera batekin bukatzen da. Galdera horiek erantzun zuzen bat eta zenbait erantzun oker izan ohi dituzte.
- Erantzun bakoitzari lotuta jauzi bat dago. Jauzi hori erlatiboa edota absolutua izan daiteke. Jauzi erlatiboek aurretik ezarritako ordenan orri bat aurrera egitea edota atzera egitea eragiten dute. Honako hauek dira jauzi erlatiboak: *Hurrengo orria*, *Aurreko orria* edota *Orri hau*. Jauzi absolutuek, ordea, zein orritara egin behar den jauzi zehazten dute haren izenburuaren bidez. Gauzak horrela, ikasgai batek adarkaturak, begiztak eta egitura ez-lineala izan ditzake.
- Erantzun zuzenek (bat baino gehiago egon daitezke) ikasgaiaren aurrera egiten laguntzen diote ikasleari; erantzun okerrekin, berriz, atzera bidali edota geldirik mantentzen dute (orri bera bistaratuta).
- Lehenetsitako balio gisa, lehenengo erantzunak (irakaslearen ikuspuntutik) ikasgaiaren hurrengo orrira bidaltzen du ikaslea. Gainerako erantzunak orri berera daramate. Ikasleei erantzunak bistaratzen zaizkienean, horiek beti daude aldatuta, hau da, irakasleak ikusten duen aurreneko erantzunak ez du zertan izan behar ikasleak ikusten duen erantzunen zerrendako lehendabizikoa.
- Erantzunen kopurua aldatu egin daiteke orri batetik bestera, orri hori amaitzen den galdera motaren arabera. Adibidez, orri bat egiazkoa/faltsua motako galdera batekin buka daiteke, eta beste bat, ordea, hainbat erantzun zuzen dituen aukera anitzeko batekin.
- Posible da erantzunik gabeko orriak sortzea ere. Kasu horretan, ikasleari *Jarraitu* esteka agertuko zaio erantzun multzoaren ordean.
- Ikasgaiak ere badu nabigazio-ordena ere, ikasleek orriak ikusten dituzten ordena, hain zuzen ere. Ordena hori bakarkako erantzunentzat ezarritako jauziek zehazten dute eta ordena logikotik desberdina izan daiteke.
- Erantzunarekin batera berehalako ezagutza- edota errefortzu-sistema dago. Erantzun bakoitzak bere errefortzu-sistema edo iruzkina dauka, eta orri berrira igaro aurretik bistaratzen da. Eskuarki, errefortzu horiek laburrak dira (ondo, gaizki...), baina erantzun bat zergatik den zuzena edo okerra ere azal dezakete.
- Ikasgai batek informazio asko badauka, kapituluetan edo ataletan bana dezakegu. Ikasgai bateko atal horiei adarkatze deitzen zaie Moodle sisteman. Adarkatze (edo adar soilik) bakoitzak hainbat orri izan ditzake (normalean gai beraren ingurukoak direnak).

9.3 - Glosategia

Glosategi bat terminoen zerrenda bat da, bakoitza bere definizioarekin. Glosategiak edozein erabiltzailek sor ditzake helburu desberdinekin. Adibidez, irakasle batek bere ikastaroko kontzeptu eta termino

garrantzitsuenak aurkezteko eta ikasleen eskura jartzeko sor dezake glosategi bat. Ikasleek glosategi horri ekarpenak egin ahal izango dizkiote. Guztien artean glosategi bat osa dezatela agindu diezaiekegu ere ikasleei.

Glosategien ezaugarriak:


- Glosategiko terminoak kategorietan taldeka daitezke.
- Glosategi bateko testuek irudiak eduki eta fitxategi bitarrak erantsita izan ditzakete. Irudiak erabiltzean, hiztegi ilustratu bat bailitzan, edukiari indar gehiago eman dakioke.
- Irakasleek ikasleek egindako sarrerak gainbegira ditzakete argitaratu aurretik.
- Parte-hartzaileek glosategiko sarrerak iruzkin ditzakete: sarrera bakoitza uneoro ñabartu, aberastu, sakondu... ahalko da.
- Glosategiak aurkezpen-formatu desberdinetan bistara daitezke.
- Irizpide desberdinen arabera egin daitezke bilaketak (hitz-gakoen arabera, egilearen arabera, edota dataren arabera).
- Moodle plataformak bereizketa egiten du ikastaro bateko glosategi nagusiaren (bakarra dena eta irakasleak soilik edita dezakeena) eta bigarren mailako glosategien artean (zeintzuk ikasleek haietan sarrerak eta iruzkinak egiteko baimena izan dezaten konfiguratu daitezkeen).
- Glosategiak erraz asko esporta eta inporta daitezke XML lengoaiaren bidez; horrez gain, bigarren mailako glosategietatik terminoak esporta daitezke glosategi nagusira.
- Gainbegiraketa behar duen glosategi bat sar daiteke, hainbat irizpideren arabera parte-hartzaileak kalifikatzen uzten duena. Honako hauek dira irizpideak: ekarpen kopurua, irakaslearen gainbegiraketa gainditzten duten ekarpen kopurua, gainbegiratutako (beraz, argitaratutako) eta kideek ondo balioetsitako edota kalifikatutako ekarpen kopurua eta azken glosategian sartutako edota ikastaroko glosategi nagusira esportatutako ekarpen kopurua.
- Posible da glosategiko sarreretara estekak automatikoki sortzea ikastaro guztian zehar. Horrela, baliabide batean glosategiko sarreraren bat erabiltzen den bakoitzean, Moodle plataformak glosategiko termino horren azalpena bistaratzea ahalbidetuko duen hiperesteka bat txertatuko du automatikoki. Aukera horrek Moodle plataformaren bidez sartutako testuentzat balio du bakarrik, eta ez baliabide gisa inportatutako fitxategi bitarrentzat.
- Orri nagusian dagoen *Glosategiko ausazko sarrera* deritzon blokearen bidez, glosategi batetik ausaz hartutako sarrerekin osatutako multzo bat gainera dezakegu.
- RSS kanal bat aktibatzea ahalbidetzen du.

9.4 - Zereginak

Zeregin bat ikasleari agindutako lan bat da, normalean formatu elektronikoa prestatu beharko duena, eta, bukatzean, entregatu beharko duena sistemaren bidez zuzentzeko.

Zeregin motak:

- *Lineaz kanpoko (offline) jarduera*. Zeregin mota hau erabilgarria da lana plataformatik at egiten denean, eta, gainera, elektronikoa ez den formatu batean egin behar dute. Ikasleak zereginaren deskripzioa ikus dezake, baina ezin du fitxategirik igo. Irakasleak egindako kalifikazioak, ordea, bai sar daitezke, eta ikasleak ikusi ahal izango ditu.
- *Fitxategi bakarra igo*. Kasu honetan ikasleak edozein motatako fitxategi bat igo dezake. Modu horretan, bidalitako zereginak *online* kalifikatu ahalko ditu irakasleak.
- *Online testua*. HTML testu-editorea erabiltzea ahalbidetzen dio ikasleari eskatutako lana zuzenean idazteko.
- *Fitxategien igoera aurreratua*. Zeregin mota hau ikasleari fitxategi bat baino gehiago eman dezala eskatzen zaionean erabiltzen da. Normalki, zereginaren deskripzioan zehaztuko da zenbatekoa den igo beharreko fitxategi kopurua.



Zereginak denboraz kanpo bidal daitezke, baina irakasleak argi asko ikus dezake atzerapen-epaia. Irakaslearen oharrak ikasle bakoitzaren zereginaren orrira gaineratzen dira eta ikasleari jakinarazpen-mezu bat bidaltzen zaio.

Irakasleak hala nahi izanez gero, kalifikazioa jarri ostean, zeregina berriro bidaltzea baimen daiteke.

[Galdetegietako](#) saiakera motako galderak kalifikatzen diren antzera kalifikatzen dira zereginak ere.

9.5 - SCORM

SCORM pakete bat SCORM estandarraren arabera paketatutako webeko material multzoa da. Web nabigatzaile batean dabilen edozein fitxategi barne hartzen du (web orriak, grafikoak, javascript, flash...). .ZIP edota .PIF motako fitxategia da.

9.6 - Hot Potatoes Quiz

Hot Potatoes-en egindako ariketak inportatzen uzten du.

Moodle plataformako kalifikazioetan emaitzak sartzen uzten du.

9.7 - Foroak

Foroak Moodle plataformako komunikazio-tresna garrantzitsuenak dira.

Ikastaro guztietan foro bat sortzen da (*Albisteen Foroa* deiturikoa) lehenespen gisa. Foro hori bakarra da eta ikastaroaren 0 atalean agertuko da beti. Iragarki orokorrak jartzeko lekua da, besteak beste, emate-datak, azterketak, ordutegi-aldaketak...

Argitaratutako azken mezuak *Nobedadeen* blokean ere agertzen dira, eta, era horretan, iragarki-taula gisa funtzionatzen du. Ikasle guztiak daude foro horretara harpidetuta, eta horrek zera esan nahi du: web bidez konektatzen direnean, mezuak ikusi ahal izateaz gain, horren kopia bat posta elektronikoa jasoko dutela.

Foro motak:

- *Eztabaida arrunt bakarra*. Gai bakarra eztabaida-hari bakarrarekin.
- *Pertsona bakoitzak eztabaida bat proposatzen du*. Pertsona bakoitzak gai bakar bat proposa dezake.
- *G eta E foroa*. Ikasleek euren mezua bidaltzen dutenean bakarrik ikusi ahal izango dituzte gainerako ikasleek mezuak.
- *Erabilera orokorrerako foro arrunta*.

Foroen ezaugarriak:

- Eztabaidak (ekarpenak) habiaratuta (adarren arabera) bistara daitezke, edota mezu berrienak edo zaharrenak lehenak aurkez ditzakete.
- Foroan izandako parte-hartze bakoitza erabiltzailearen izenarekin eta ekarpenaren datarekin erregistratzen da sisteman, gainerako erabiltzaileentzat eztabaida bat jarraitzea intuiziozko lana izatea lortzeko asmoarekin.
- Mezuak ere modu bat baino gehiagotan ikusi daitezke, gaineratutako mezuak eta txertatutako irudiak eduki ditzakete.

- Foroak modu desberdinetan egitura daitezke, eta mezu bakoitzari kideek egin dioten ebaluazioa barne har dezakete. Foroetako kalifikazioak erabiltzen badira, data-tarte batera muga daitezke.
- Irakasleek eztabaidagaiak hainbat forotatik zehar mugi ditzakete.
- Irakasleek ikasle guztiak foro batera harpidetu daitezela derrigor ditzakete, edota bakoitzak zein forotara harpidetu nahi duen erabaki dezala utz dezakete. Era horretan, mezuen kopia bat posta elektronikoz jasoko dute.
- RSS kanal bat gaitu dezakegu, baita bertan sartu beharreko artikulua kopurua ere.
- Bilaketak egiten uzten du, eta bere modu aurreratuak Google bilatzaileak dituen antzeko aukerak eskaintzen ditu.
- Foroak hauta daitezke taldeentzat (ikusgai edota banatuta).
- Irakurritako eta ez irakurritako mezuen jarraipena egitea ahalbidetzen du; horrez gain, nabarmengailu baten bidez, mezu berri guztiak berehala ikustea eta horiek bistaratzeko modua (foroaren arabera, erabiltzailearen arabera, webgunearen arabera) kontrolatzea ere ahalbidetzen du.

9.8 - Wiki

Wiki hitza hawaiiar jatorriko *wiki wiki* adierazpidetik dator, eta haren esanahia *azkarra* da. Esparru teknologikoan, berriz, wiki bat zera da: edukia elkarlanean, azkar eta modu eraginkorrean sortzeko softwarea.

Wiki baten oinarriko printzipioa partekatutako eta elkarlaneko lekuak eraikitzea da, hau da, mundu guztiak ahal izan behar du leku horretara eduki berria ekarri, besteak beste, orri edota esteka berriak. Moodle plataformako wiki moduluak printzipio hori jarraitzen du, ikastaro bateko partaideei web orriak sortzea ahalbidetzen baitie HTML kodeari buruzko ezagutzarik izan gabe.

9.9 - ACCEEdu ariketak

ACCEEdu ariketak ACCEEdu tresnaren bidez sortutako ariketak dira, eta haien ezaugarri nagusia zera da: ikus-entzunezko hezkuntza-jarduera irisgarriak direla. Horrek zer esan nahi du? Enuntziatuetan zein erantzunetan multimedia-elementuak darabilten jarduerak direla, eta, gainera, modu irisgarrian egiten dutela, azpтитuluak eta audiodeskripzioak erabilia.

9.9.1 - ACCEEdu ariketa sortu


Behin ACCEEdu jarduerak haren tresnaren bidez sortu ditugula, oso erraza da gure Moodle ikastarora gaineratzea, beste jarduerekin egiten den modu berean egiten da.

Sortze-formularioak honako datu hauek ditu:

- **Izenburua.** Jarduerari jarriko zaion izena.
- **Deskribapena.** ACCEdu jardueraren aurkezpena. Jardueran enuntziatua izan daiteke, jarraibideak...
- **Kalifikazioa.** Jarduera kalifikatuko den ala ez zehazten da eta zein eskalatan.
- **Hasiera-data.** Jarduera noiztik aurrera ebatz daitekeen adierazten duen data.
- **Amaiera-data.** Jarduera noiz arte ebatz daitekeen adierazten duen data.
- **Amaiera-dataren ondoren bidalketak eragotzi.** Irakasleak hala iritziz gero, nahiz eta amaiera-data gaindituta egon, jardueren ebazpenak bidaltzea baimenduko da. Kasu horretan, bidalketa epetik kanpo egiten bada, horrela egitea baimenduko da, baina irakaslea horren jakinaren gainean egongo da.
- **Bidalketa antzak baimendu.** Behin ariketa kalifikatuta egonda, ikasleak berriz bidal dezake ariketaren ebazpena.
- **Irakasleei posta elektronikoa bidez jakinarazi.** Irakasleak mezu bat jasoko du ikasleren batek ariketara erantzuten bat igotzen duen bakoitzean.
- **Gehienezko tamaina.** Igo ahal izateko, fitxategi batek izan behar duen gehienezko pisua.
- **.AEE fitxategia.** ACCEdu jarduera gordetzen duen fitxategia. Fitxategi hori ACCEdu tresnarekin sortutakoa izango da.

9.9.2 - ACCEdu ariketa egin

ACCEEdu ariketa sortu eta ikaslea bertara sartzen denean, ariketa bere ordenagailura jaisteko (1) aukera emango dion pantaila aurkituko du, ondoren bere ACCEEdu bisorearekin egin dezan. Formulario bat ere topatuko du, ariketa ebatzi eta gero hura ikastarora gaineratu (2) eta igotzeko, irakasleak zuzen dezan.



ACCEEdu ariketa batean ikasleek aurkituko dituzten jarduera mota desberdinak hurrengoak dira:

- **Enuntziatua:** Berez ez da ariketa bat, ebazpena ez duen ariketa baten enuntziatua baizik. Mota honetako jardueretan ez da ikaslearen erantzunik espero baina gerta daiteke irakasleak ebazpena eman nahi izatea jarduera multzoa zuzentzerako orduan.

Doctor Livingstone : Doctor Livingstone (1 de 1)

1.2 Enuntziatua

"Doctor Livingstone, suposatzen dut" Henry Stanley (1871). Ezagutzen al duzue esaldi hau? Ba al dakizue nor izan zen David Livingstone Doktorea? XIX. Mendeko esploratzaile ospetsu bat izan zen. Ibilbide berriak zabaldu zituen Afrikan eta Zambezeko ur-jauziak aurkitu zituen Victoriako ur-jauzien zena emanaz.

Erabili Google-Maps aurkikuntza hori gauzatzeko egin zuen ibilbidea markatzeko eta ibilbide horren irudia harrapatu gero entregatu ahal izateko.

Ireki ondorengo orria gustukoaren duzun nabigatzailean: <http://maps.google.com/>

Mapa berri bat ibilbide batekin sorbezo, omiarren golan eta ezkerreko aldean dagoen "Nire mapak" izeneko estekan klik egin.

Lehen egin beharreko gauza, ibilbidea markatu nahi duzun tokira hurreratzea da, horetarako saguarekin bi mugimendu erabili behar izango dituzu:

Zoom: Bi aldiz klik egin saguaren ezkerreko botoiarekin.

Mapa mugitu: klik egin mapan eta narraz eraman.

Bi mugimendu hauekin nahi duzun tokira hurreratuko zara dena ondo ikusteko beharrezkoa den zoom-arekin.

Mapa nahi duzun bezala kokatua dagoenean, ibilbidea markatu beharko duzu. Goiko parteko ezkerrean, ibilbidea markatzeko behar izango dituzun 3 botoi daude (eskua, globoa eta grafikoa).

Eskua: oraingo posizioa. Mapa mugitzeko eta zoom egin ahal izateko.

Globoa: Posizio markagailua erantsi. Ibilbidearen hasiera eta amaiera markatzeko erabiltzen da. Ikono honetan klik egiten baduzu eta ondoren mapan, leku horretan globo bat agertuko da. Globo horri iruzkin bat jarri ahal izango dioz puntu hori identifikatzeko, adibidez "abenturaren hasiera", "arnaiara", "helmuga"...

Grafikoa: Ibilbidea marraztu. Botoi honetan klik egiten baduzu, ondoren mapan ibilbidea irudikatuko duen marra bat marraztu ahal izango duzu. Saguaren klik-en bidez egingo duzu hori. Klik egiten duzun bakoitzean, tarteko puntu bat sartuko da leku horretan eta norabidea aldatu eta kurbak egin ahal izango dituzu.

Anterior

Finalizar Limpiar

Siguiente

- **Hautespén sinplea:** Test formatua duen jarduera mota; Erantzun bakarra izango da zuzena. Enuntziatua zein erantzunak multimedia baliabideak izan daitezke.

Errepasoa : Elementu Geografikoak (1 de 5)

1.1 Ebro ibaia

Ondorengo mapetatik, zeinek irudikatzen du Ebro ibaia?




Anterior


Limpiar

Siguiente


- **Hautespén anitza:** Test formatua duen jarduera mota. Erantzun bat baino gehiago izan daiteke zuzena. Enuntziatua zein erantzunak multimedia baliabideak izan daitezke.




- **Erantzun irekia:** jarduera mota honetan ikasleak erantzun irekia bete (testua, multimedia artxiboa...) eta irakasleak eskuz zuzendu beharko du.



- **Azpitulua eta etiketak jartzeko jardura:** bideoen azpitulazioa edo audiodeskripzioa lantzeko jardura mota. Oso jardura zabala da eta hainbat motako ariketak eskaintzen ditu: azpitulua zeretik sortu daitezke, azpitulua sortuta eman eta beren edukia editatu edo zuzen tenporizatu, azpituluen zutabe bi lotu, ordenatu... Eta gauza bera audiodeskripzioekin.



- **Baliabideen etiketatua:** irudi, audio edo testu bateko atalak etiketa batekin markatzen diren jarduerak.



9.9.3 - ACCEdu ariketa zuzendu

Bai **Administrazio** blokeko **Kalifikazioak** izeneko estekaren bidez joanda, bai ACCEdu ariketara sartu eta **Bidalitako erantzunak bistaratu** deritzon loturaren gainean klikatuta, ariketa horren gainean ikastaroko ikasle guztiek ateratako noten pantailara helduko gara.


Irakasleak bere notak eta iruzkinak jar ditzan, **Kalifikazioa** estekaren gainean sakatu beharko du, zereginen eta galdetegien kalifikazioan egiten den antzera.

ACCEdu ariketetan, galdetegietan bezala, automatikoki kalifika daitezke hala egitea uzten duten galderak (erantzun anitzekoak, egiazkoa eta faltsua...), baina badaude ariketa batzuk (adibidez, erantzun irekikoak) irakasleak kalifikatu behar dituenak (galdetegietan saiakerak dira).

Hori egiteko edota ikasleak egindako lana ikusteko, irakasleak ikaslearen lana jaitsi eta ACCEdu aplikazioarekin ikusi behar du.

Honako hauek dira jarraitu beharreko urratsak:

- Ariketa-oinarria jaitsi enuntziatu gisa emandako ariketaren txantiloia izateko. (1)
- Ikasleak emandako erantzuna jaitsi hura ikusi ahal izateko. (2)
- ACCEdu aplikazioa ireki.
- Zuzenketa berri bat sortu *Fitxategia* menuan, jaitsi berri duen ariketa-oinarria eta ikasle guztiak emandako erantzunak gordetzen dituen karpeta hautatuta.



- Zuzentzen hasi.

Zuzentzeko modua oso erraza da. Ezkerreko goiko laukian, zuzenduko diren ariketak norenak diren adierazten duen ikasle-zerrenda bistaratuko da. Haien izenak ezkuta daitezke, irakaslearen objektibotasunean eraginik izan ez dezaten.

Ezkerreko beheko laukian, berriz, ikasle bakoitzak egindako jarduerak azaltzen dira, eta lortu duten nota, aurretik zuzenketa automatikorik egin bada.

Modu horretan, ikasleen zerrendatik nabigatu ahala, beheko zerrendako ariketak eta notak eguneratuz joango dira.

Azkenik, eskuineko markoa geratzen da. Hori uneoro gauden ariketaren xehetasun-bista da. Berezitasun bat du: ikasleak emandako erantzuna erakusten du, bai eta bere garaian irakasleak zuzentzat eman zuen erantzuna ere; beraz, alderatu egin daitezke.

Argitalpena Proiektu Aukerak Ikusi


aniketen zuzentzailea

Fitxategia Ikusi

Ikasleen zerrenda

"Errepasoa" Ekintza: Matxitxako Lurmuturra

Adituaren zuzenketa



Emaitzak


Errepasoa

| Ekintza | Nota | Bal.auto. | Pisua(%) | kalif. |
|-------------------------|------|-----------|----------|--------|
| Elementu Geografikoak | | | 20 | 1 |
| Ebro ibaiak | 10.0 | 10.0 | 10 | 1 |
| Tajo ibaiak | 0.0 | 0.0 | 10 | 0 |
| Elementu geografikoak 2 | | | 20 | 1 |
| Guadalquivir ibaiak | 0.0 | 0.0 | 10 | 0 |
| Duero ibaiak | 10.0 | 10.0 | 10 | 1 |
| Elementu Geografikoak 3 | | | 20 | 1 |
| Ziztema Zentrala | 0.0 | 0.0 | 10 | 0 |
| Sistema Betikoa | 10.0 | 10.0 | 10 | 1 |
| Elementu Geografikoak 4 | | | 20 | 0 |
| Menorca Uharteak | 0.0 | 0.0 | 10 | 0 |
| Lanzarote Uharteak | 0.0 | 0.0 | 10 | 0 |
| Elementu Geografikoak 5 | | | 20 | 0 |
| Finisterre Lurmuturra | 0.0 | 0.0 | 10 | 0 |

Irakasleak, ikaslearen erantzunak ikusi ahal, dagokion nota jarriko du eskuz emaitzen koadroko *Nota* deritzon zutabearen.

Behin zuzenketa bukatuta, honako menu honetara joan beharko da: *Fitxategia / Zuzenketa Moodlerak bidali*, eta, modu horretan, dagoeneko zuzenduta dauden ariketen fitxategiak sortuko dira, ikasle bakoitzaren kalifikazioan kargatu beharko direnak.

Horretarako, Moodlerak joan, ariketaren kalifikazio-pantailara, eta *Kalifikazioa* esteka sakatu behar da. Bistaratzeko den formularioan dagoeneko zuzenduta dagoen aipatutako ikaslearen ariketa hautatu eta jakinarazi nahi zaion edozein iruzkin egin ahal izango zaio.



Gauzak horrela, irakasleak egindako zuzenketan Moodle plataforman gordeko dira eta ikastaroko kalifikazioetan ikusi ahal izango dira.

| Kalifikazio-elementua | Kalifikazioa | Ibiltartea | Portzentajea | Feedbacka |
|---|--------------|--------------------|----------------|-----------------------|
| Gizarte Media | | | | |
| Lurikarak foroa | - | 0.00-1.00 | - | |
| Euskadiko geografia fisikoaren 1. galdeketa | - | 0.00-10.00 | - | |
| 2. galdeketa. Iberiar penintsulako geografia fisikoa | - | 0.00-10.00 | - | |
| 3. galdeketa. Europako geografia fisikoa: ibaiak, mendiak eta irlak | - | 0.00-10.00 | - | |
| 4. galdeketa. Europako geografia fisikoa: irlak, itsasoak eta golkoak | - | 0.00-10.00 | - | |
| 5. galdeketa. Ipar Amerikako geografia fisikoa | - | 0.00-10.00 | - | |
| 6. galdeketa. Hego Amerikako geografia fisikoa | - | 0.00-10.00 | - | |
| 7. galdeketa. Afrikako geografia fisikoa | - | 0.00-10.00 | - | |
| 8. galdeketa. Asiako geografia fisikoa: mendiak, irlak... | - | 0.00-10.00 | - | |
| 9. galdeketa. Asiako geografia fisikoa: ibaiak, itsasoak, golkoak... | - | 0.00-10.00 | - | |
| Elementu geografikoak | 95.00 | 0.00-100.00 | 95.00 % | |
| Aukeratu irudiak | 20.00 | 0.00-100.00 | 20.00 % | |
| Livingstone doktorea | 50.00 | 0.00-100.00 | 50.00 % | |
| Populazio mapa | 100.00 | 0.00-100.00 | 100.00 % | oso ondo |
| Plaka tektonikoak | 50.00 | 0.00-100.00 | 50.00 % | |
| Lurikada | 100.00 | 0.00-100.00 | 100.00 % | |
| Zure biografia | 80.00 | 0.00-100.00 | 80.00 % | |
| Errepasoa | 80.00 | 0.00-100.00 | 80.00 % | Oso ondo egin duzula! |
| \bar{x} Ikastaroan guztira | 71.88 | 0.00-100.00 | 71.88 % | |